

Subiranotasun nazionala hizkuntza berreskuratzeko

Erramun Bachoc

Nagusitasuna galdu duten herriek, askotan herri hizkuntza ere galdu dute, kanpoko hizkuntza hartuz, elebitasunean lehenik eta gero elebakartasunean. Subiranotasuna irabazi duten herriek ez dute beti jatorrizko kultura berreskuratu. Adibidez, Irlandan. Quebec herrialdearen gisa, daukagun autonomiaz baliatuz, herri hizkuntzaren lehentasuna finkatu behar dugu, ez bakarrik ikaskuntzan, baita ere, eta berehala, gizarte erabileran.

The people which lose superiority often lose their own language as well, they adopt the foreign language and they become bilingual at first and monolingual afterwards. On the contrary, the people who gain the sovereignty not always regain back their own culture, think of Ireland for example. But as it has happened in Quebec, we should, by exercising our autonomy rights, establish the priority of the Basque language, not only in school but also, and very quickly, in the normal social use

Hiztegi ttiki bat hasteko. Herri bat subiranotasunean dago goragoko aginterik ez daukalarik. Bere buruaren nagusi da. Badakigu zer den "etxeko nagusia". Herria herriaren nagusi delarik zergatik ez aipa herriaren nagusitasuna. Orduan Estatu bilakatzen da edota konfederazio batean sartzen Europan gertatzen den bezala.

Hizkuntza da herri baten ezaugarri nagusia, bere kulturen eta beraz nortasunaren adierazteko bide egokiena. "Hizkuntza da herriak bere burua herri edo nazio bezala autoafirmatzeko daukan elementu funtsezkoenetakoa" (Agirreazkuenaga). Hizkuntza herriaren arima da, erakunde politikoa gorputza den bezala.

Subiranotasunak eta hizkuntzak erlaziorik ba ote dute?

Ba ote dute elkarren arteko loturarik? Zenbaitek diote ezetz. Alabainan Irlandan independentzia 1921.ean erdietsi ondoren herri hizkuntza galdu dute. Alderantziz Quebecen herri hizkuntza legez eta ekintzaz behin betikotz finkatu dute eta independentziari uko egin zioten 1980.eko erreferendumean.

Gertakariak hobeki azter ditzagun. Besteren meneko den herriak bere nortasuna galtzen du. Frantsez Prefeta batek zioen "Euskal Herririk ez da". Frantziako Konstituzioaren arabera Corsica ez da herria.

Herri bat bere nortasunaz berriz jabetzen delarik hiru helburu erdietsi behar ditu: politika nagusitasuna, hizkuntzaren berreskurapena, ekonomiaren garapena. Hiru bide baina norabide bakarra herriaren nortasuna.

Irlandak lehen etapa egin du, nagusitasuna, bigarrena ez. Quebec-ek bigarrena eta hirugarrena iragan ditu, hizkuntzaren eta ekonomiaren garapena. Lehena beste aldiko. Iduri luke bi kasu hauetan subiranotasuna eta hizkuntza bereiz dabilzala. Itxuraz bakarrik. Euskal Herriko egoera eta Quebec-ekoa alderatuz nabari da autodeterminazioak politika eta kultura elkar lotzen dituela. Ekonomia ere bai, hori beste mintzagai bat da.

Nagusitasuna galduz hizkuntza isiltzen

Egia erran herri bat beste baten meneko erortzen delarik, kolonizazio, gerla ala asimilazio, hots erakunde politikoak galtzen dituelarik, herri nortasun sakona ere galtzen du, menperatzailearen erdara erabiliz.

William Mackey, Quebecoko hizkuntzalari famatuak artiku-

«Irlandan independentzia 1921.ean erdietsi ondoren herri hizkuntza galdu dute. Quebecen herri hizkuntza legez eta ekintzez behin betikotz finkatu dute eta independentziari uko egin zioten 1980.eko erreferendumean»

lu lazgarri bat idatzi zuen "Hizkuntza hilkortasuna eta herri elebitasuna". "Elebitasun etnikoa" gertatzen da, herri bateko biztanle guztiek beste hizkuntza bat erabili behar dutelarik gizartean integratzeko. Quebecar batek ez du ingelesaren ikasterik osoki herritar izateko, elebidun federazioan bizi delakotz. Frantzierarekin bakarrik ongi bizi da. Alderantziz, Euskaldun elebakarduna bere herrian analfabetotzat hartua da. Euskaldun batek frantziara edo gaztelania ez badaki gizartetik baztertua izanen da. Ondorioz euskaldun guztiok erdaldun gara.

Elebitasun "etnikoa" arriskugarria da herri hizkuntzaren-tzat. Herri hizkuntza etxean eta auzoan erabiltzen da eta denbora berean kanpotikako hizkuntza gizarte harremanetan. Bi hizkuntzak borroka gorrian daude eta gehienetan kanpoko hizkuntzak bestea suntsitzen du epe luzean. Hona aipamen bat: "elebitasun etnikoa aldatzen da denborarekin beti norabide berera: hizkuntza berria erabiltzen da gero eta gehiago, gero eta hizlari gehiagoren artean, gero eta funtzio gehiagoren betetzeko. Azkenean denek hizkuntz berria darabilte, beti eta funtzio guztietan, bai elkarrizketa pertsonaletan, bai gizarte harremanetan".

Hori gertatzen da gauzak doazen bezala utziz. Hori gertatu zaigu historian zehar. Euskal Herrian euskara gutiengoaren hizkuntza gutitua da. Baina kasu! Hizkuntzaren geroa hiztunen gain dago. Herriaren historia guk egiten dugu.

Nagusitasuna berreskuratzean

Herri batek nortasuna berriz eskuratu nahi duelarik, berehala herri hizkuntza berriz pizten du. Hiru adibide.

Lituaniako Soviet Gorenak, independentzia hartu bezain laster, erabaki du "lituaniar hizkuntza dela hizkuntza ofiziala, komunikabide nagusia errepublikako jendearentzat". Politika, gizarte eta ekonomia erakunde guztiek lituaniar hizkuntzaz eraman behar dituzte beren lanak eta harremanak. Hezkuntza guztia, eskolaurrea, lehen eta bigarren maila, goi mailako ikaskuntzak lituaniar hizkuntzaz eginen dira. Hizkuntza ofiziala ez dakiten kargudunek bi urte dute ikasteko. Halere legeak errespetatzen ditu minorien hizkuntz eskubide indibidualak.

Estonian gauza bera, alta % 40 etorkinak direlarik: "Estoniako soviatar errepublika sozialistaren hizkuntza estoniarra da". "Lege honek balio du Estoniako erakunde guztietan, estatuan, gobernuan, enpresetan, elkarteetan, orain arte beste hizkuntza bat erabiltzen bazuten ere". "Estatuko eta gober-

*«Herri bat beste
baten meneko
erortzen delarik,
herri nortasun
sakona ere galtzen
du,
menperatzailearen
erdara erabiliz»*

*«Herri batek
nortasuna berriz
eskuratu nahi
duelarik berehala
herri hizkuntza berriz
pizten du»*

nuko ihardunaldi eta biltzar guztiak estoniarrez iraganen dira". Ez dakitenek 4 urte dute ikasteko edo alde egiteko, 1994 aitzin. Tokien izenak estoniarrez bakarrik ezarriko dira, latinezko letrekin eta ez zirilikoez.

«Lituania, Estonia eta Israelen argi eta garbi ikusten da herri nagusitasunak herri hizkuntza eta kultura berpiztu dituela. Ez da beti halaxe gertatu»

Israel estatu bilakatu zelarik, 1947.ean, ez zeukaten komunikazio hizkuntzarik, herritar guztiak ulertzen zutenik. Etorkinnek sorterriko hizkuntzak erabiltzen zituzten, alemaniera, errusiera, ingelesa, jidixa eta beste. Elkarren artean zein erabil? Han bereko arabiera, ala gehienek ezagutzen zuten ingelesa? Hemen politika aukera garrantzi handikoa egin zen hebraiera ororen arteko komunikaziorako hautatu zutelarik. Hor izan zen desafio handia: lau mende honetan nehork erabiltzen ez zuen hebraiera, berriz piztu zuten eta 25 urtez modernizatu zuten eta herri osora zabaldu.

Hizkuntzalariek Liburu Sainduetako 5.000 hitzetarik, 40.000 hitz berri sortarazi zituzten. Irakaskuntza zabaldu zen, haurrentzat eskoletan, helduentzat irrati eta telebistaz, kibatze-tako gau eskoletan, etorkinentzat "ulpan" ikastetxeetan. Ikaskuntza dinamika harrigarria sortu zen, hiztegi-gile, irakasle, programatzaile, ikasle gazte eta zaharren artean. Hogeita bost urtez, hebraiera berritua, Liburu Sainduetarik jalgi da ikastetxeetara, aldizkarietara, ikusgarrietara. Eta sartu da etxeetan, lantegietan, politika bileretan, komunikabide orotan. Ondorioak hor daude: herri komunikaziorako hebraiera, komunikazio zabalagorako ingelesa. Familietan sortizkuntzak erabiliko dira oraino belaunaldi zenbaitetan. Dena dela hebraiera berpiztu da beharrezko funtzio bat aurkitu baitu, herri hizkuntza bilakatu.

«Ofizialtasun soilak ez dio hizkuntz ahulari indarrik ematen. Legerik gabe, hizkuntz borroka salbaia da. Bi hizkuntzak legezkoak direlarik, borroka "zibilizatuagoa" da. Bi kasutan, goiz edo berant, indartsuenak irabazten du»

Kasu hauetan argi eta garbi ikusten da herri nagusitasunak herri hizkuntza eta kultura berpiztu dituela. Ez da beti halaxe gertatu.

Nagusitasuna ez da nahikoa

Alderantziz Irlandan borroka gogor baten ondotik independentzia irabazi zuten 1921.ean eta berehala gaelikoa legez "lehen hizkuntza nazionala" definitu "ingelesa ere ofiziala" zelarik. Zorigaitzez 70 urteren buruan herri hizkuntza hiltzeko zorian dago eta ingelesa nagusitu da.

Ikus zer gertatu den Irlandan. Gaelikoa da legez herri hizkuntza, ingelesa aldiz erabil hizkuntza da gehiengoarentzat. Elebitasuna ezarri zuten ikastetxe guztietan. Ingelesdunek gaelikoa ikas zezaten eta gaeldunek ingelesa. Hona herri guztia elebitasunean eta irudiz herri hizkuntza salbatua zen.

Bai zera! Elebitasun hau izan da gaelikoari eman dion azken ukaldia. Nolaz hori? Ez ote ziren bi hizkuntzak hein berean? K. Marx-ek zioen axeria oilategian ezarritz, denak berdin zirela, baina bat besteak baino berdino. Ofizialtasun soilak ez dio hizkuntz ahulari indarririk ematen. Legerik gabe, hizkuntz borroka salbaia da. Bi hizkuntzak legezkoak direlarik, borroka "zibilizatuagoa" da. Bi kasutan, goiz edo berant, indartsuenak irabazten du.

Alabainan ingelesdunek gaelikoa ikasi dute ikur bezala, gramatikalki eta agiriaren erdiesteko. W. Mackey-ek kondatzen zigan gurasoak zein harro ziren esaten ziotelarik: "Gure semeak badaki bigarren deklinabidea". Alderantziz gaeldun guztiek ingelesa ikasi dute, ez sinbolikoki, baina erabiltzeko moduan. Hauek dira egiaz-ko elebidunak, bi hizkuntzez gai guztiez mintza daitezkenak. Bi hizkuntza funtzio berentzat, bat gehiegi da: elebidunen haurrek ingelesa erabiltzen dute eta gaelikoa ikasten ikur bezala. Diglosia hau iraunkorra izanen da, haatik hilgarria herri hizkuntzarentzat. Zenbait urtez Irlandan gaelikoa irakatsiko da, kultur edergailu, lehen latina ikasi genuen bezela.

Herritar batzuk ikastolak sortu dituzte. Herri nortasunaren borroka ez da bururatua.

Quebeceko urraspidea

Quebeceko egoerak antzekotasun handiagoa dauka Euskal Herriarekin, ez baitugu oraindik autodeterminazioaren bidea bururatu, ez haiek, ez guk.

Quebec erdi bide batean dago. 1976.an alderdi independentista kargutan sartu zelarik "Frantziar hizkuntzaren lege nagusia" bozkatu zuen eta 10 urte barne, herri hizkuntzak gizarte eremu guztiak bete zituen. Baina 1980.eko erreferendumean independentziari eza eman zioten.

Ikus dezagun zer gertatu zen Quebecen. Ehun urteko hizkuntz borrokaren buruan bi lege nagusi: Canadian "hizkuntz ofizialen legea" (1970), Quebecen "hizkuntz frantziarraren lege nagusia" (1977). Alta iragan mendean, "Ipar Amerika Britainiako legeak" (1867), bi hizkuntzak ezarri zituen hein berean, frantziara eta ingelesa, Amerindianoen kulturak legez kanpo zeudelarik.

Berdintasuna teorikoa zen, indartsuena indartuz zihoan eta ahulena ahulduz. 1970.ean, Canadako gobernuak agindu zuen hizkuntz ikerketa zabal batek frantziar hizkuntza suntsitzera zihoala erakutsi zuen. Berriz ere elebitasuna legez

«Quebeceko egoerak antzekotasun handiagoa dauka Euskal Herriarekin, ez bait dugu oraindik autodeterminazioaren bidea bururatu, ez haiek, ez guk»

«1970.ean, Canadako gobernuak agindu zuen hizkuntz ikerketa zabal batek frantziar hizkuntza suntsitzera zihoala erakutsi zuen. Quebeccarrek 1977.ean herri hizkuntzaren lege nagusia bozkatu zuten»

finkatu zuten bereziki administrazio federalean. Baina beti ondorio berarekin: frankofonoek ingelesa ikasi zuten, aldiz anglofonoek ez zuten frantzieraren beharrik.

Quebecarrek ulertu zuten axeriaren ipuina, eta 1977.ean herri hizkuntzaren lege nagusia bozkatu zuten. Lehen zatiko artikulua bakarra hau da "Frantsesa da Quebecoko hizkuntz ofiziala". Besterik gabe. Ingelesa? Hitzik ez textu osoan zehar.

Legearen bigarren zatia finkatzen ditu Quebecarren hizkuntz eskubideak bost puntutan: bilerak, zerbitzu publikoak, lana eta salerospenak frantzieraz. Eta bostgarrenik ikaskuntza ere frantzieraz. Jean-Denis Gendron jaunak, hizkuntz politika antolatzen duen hizkuntzalari honek, esplikatu du zergatik ikaskuntza azkenik ezarria zen eta ez hasieran. Lehenik hizkuntzaren erabilera segurtatu behar zela, gero beharrezko hizkuntza nahitez ikasiko baita. Alderantziz irakatsi hizkuntza, ez da beti erabiltzen, Euskal Herrian edo Irlandan ikusten denez.

«Jean-Denis Gendronek esplikatu du zergatik ikaskuntza azkenik ezarria zen eta ez hasieran. Lehenik hizkuntzaren erabilera segurtatu behar zela. Alderantziz irakatsi hizkuntza, ez da beti erabiltzen, Euskal Herrian edo Irlandan ikusten denez»

Zertan ote zen frantzieraren egoera, Lege nagusiaren garaian? Etxe guztietan mintzatua zen eta eskola guztietan ikasia. Baina lantegi, salerospen, banketxeetan, komunikazio hizkuntza ingelesa zen. Kirola, publizitate, bide seinale, kantu, beti ingelesa belarri zuloan eta begien aitzinean. Erabil hizkuntza ingelesa zelakotz, ondorioz ikaskuntza ere ingelesari buruz zihoan: etorkin guztiek beren haurrak ingeles eskoletan sartzen zituzten. Belaunaldi pare baten buruko, frantsesdunak "Indio" bilakatuko ziren Quebecen berean.

Eta hona non hizkuntz lege nagusiak alenazioaren prozesua gelditu zuen: herri hizkuntza frantsesa da. Beraz erabil hizkuntza frantsesa da Quebecen. Eta ondorioz ikaskuntz hizkuntza frantsesa da ororentzat.

Ingelesa bigarren hizkuntza da, komunikazio zabalerako. Egoera hau ez da elebitasuna deitzen ahal, bi hizkuntzak ez baitira hein berean. Ez eta ere elebakartasuna, ingelesak ere ofizialtasuna baitauka espazio zabalago batean. Egoera hau elelehentasuna izenda nezake edo Ferguson jarraikiz, diglosia funtzionala. Diglosia hau pizgarria da frantzierarentzat eta arrisku gabekoa ingelesarentzat.

Teoriatik praktikara lehen bait lehen iragateko, Lege Nagusiak frantzieraren konseilua eraiki zuen, erabaki eraginkorren hartzeko. Ondoko ikasturteetik hara, etorkinen haurrek frantses eskoletara joan behar zuten. Bi urte barne, bide seinaleak eta erosgaien idazkiak bi hizkuntzetan ezarri behar ziren. "Montrealek frantses itxura hartuko du, Torontok ingeles itxura

duen neurrian".

Bost urteren epean, lantegi, bulego eta erostetxe guztiak frantzieraz ihardun behar dute: laneko hizkuntza, idazkiak, publizitatea eta beste. Eta frantziar agiria erdietsi behar dute, gobernuarentzat lanean ari nahi badute. Horiek guztiak errepresiorik gabe egin dira eta Kontseiluaren laguntzarekin.

Quebeceko Herrialdea, zeukan autonomiaz baliatu da frantziara hizkuntz ofizial bakarra definitzeko, ingelesak eskubide historikoak atxikitzen dituelarik. Frantzierak herriaren eremu guztia betetzen du, legez eta izatez: ez bakarrik etxean eta eskolan, baita ere administrazioan, zerbitzu publikoetan, lantegietan, hiri seinaletan...

Canadako elebitasun ofizialarengatik galdu zituen eremuak herri hizkuntzak berriz hartu ditu. Baina bi legeak hor daude, bat bestearen aurka, auzi askoren iturburu. Herriak hautatu behar du. Autodeterminazioa. Herri nortasunaren aitzinapena ez da oraino bururatua eta Quebec beste erreferenduma baten bezperan dago. Han egin diren urratsak argibide dira guretzat, gu baino aitzinatuago baitira. Ikus zer dugun eginik (hizkuntz gogoa, ikaskuntza, liburugintza) eta zer dagoen egiteko (lan eremua, hiria, komunikabideak, unibertsitatea).

Euskal Herrian zer?

Herri nagusitasunaren aldetik Hegoaldean bi lurralde autonomiadun badira, Espainiako Konstituzioaren itzalean. Alde horretatik Quebeceko egoera politikoaren antzekoa. Iparraldean ez daukagu den mendreko autonomiarik, ez eta administrazio erakunderik ere. Gaur egun Pizkundea kultur Federazioak bultzaturik baditugu bi euskal erakunde Euskal Kultur Erakundea eta Udalarateko Euskal Sindikata: baina Estatua- ren, Akitaniaren eta Departamentuaren itzalean.

Gainera Iparraldean ez dugu hizkuntz legerik, salbu Deixon- ne legea hezkuntza mailan. Frantziar ez da hizkuntz politikarik. Orduan gu euskaldunok legez kanpo gaude: konstituzioaren arabera ez da herririk eta legearen arabera ez da euskararik. Alta Euskaldunok hor gara. Siadeco erakundeak bi inkesta egin ditu 1986an eta 1990n. Azken hau segetuan dago. Lehenaren bidez badakigu Baxenabarren Hirutarik bi euskaraz bizi direla, Xuberon eta Lapurdi barnean biztanleen erdiak eta Kostaldean ere kasik laurden bat. Orotarat 80.000 hurbil, heren bat.

«Quebecen hizkuntz lege nagusiak alenazioaren prozesua gelditu zuen: herri hizkuntza frantsesa da. Beraz erabil hizkun-za frantsesa da»

«Quebeceko egoera elelehentasuna izenda nezake edo Fergusoni jarraikiz, diglosia funtzionala. Diglosia hau pizgarria da frantzierarentzat eta arrisku gabekoa ingelesarentzat»

*«Hegoaldean
Legediaren
ondorioak hor
daude: euskara gero
eta gehiago ikasten
da: gero eta gutiago
erabiltzen gizarte
harremanetan eta lan
lekuetan»*

Baina administrazioak ez daki euskaldunik badenetz. Eskoletan 20.000 haurretatik 2.500 badabiltza ikasleekin eta gela elebidunetan: beste 2.000 haurrek astero 3 orduz euskara ikasten dute irakasle ibilkariekin. Irrati ofizialean oren bat euskaraz egunero eta telebista ofizialean sei minutu t'erdi euskaraz astero. Bordeleko Akademia Errektore batek esan zuen: "Lagun ditzagun polikiago hiltzen". Frantzia euskaldungoak eutanasia kulturala jasaten du: eutanasia, goxoki hiltzeko teknika.

Hegoaldean hiru hizkuntz lege badira. Bat Espainiakoa, bestea Euskadiko Autonomi Elkartearen, hirugarrena Nafarroan. Baina abiapundua Espainiako Konstituzioak ematen du 3. artikuluan: "Gaztelania da Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainiar guztiek badute jakiteko eginbidea eta erabiltzeko eskubidea. Beste hizkuntza espainiarrak ere ofizialak izan dira bakoitza bere Elkarte Autonomoan eta estatutoaren akordioarekin".

Ezberdintasun handia agertzen da Estoniako legearekin: han denek estoniarra erabiliko duten orotan, kasu batzutan errusiera erabil daiteke. Elkarte autonomoetan gaztelania eginbidezkoa da, tokiko hizkuntza bakoitzaren eskubidea. Legeak bere indarra ematen dio hizkuntza indartsuari beharrezkoa izanez. Herri hizkuntza gutitua nahizkoa da bakarrik.

Hizkuntz eskubideaz baliatuz Euskadiko Autonomi Elkar-teak euskararen ikaskuntza zabaldu du eskola guztietara eta erabilera administrazioaren eremuetara. Nafarroan hizkuntz legea lurralde euskaldunetan mugatzen da.

*«Aterabide bakarra
da Quebecarrek
bezala, daukagun
autonomiaz baliatu
behar dugula
euskarari
lehentasuna emateko,
ez bakarrik
irakaskuntzan, bai
eta ere gizarte
harreman guztietan»*

Ondorioak hor daude: euskara gero eta gehiago ikasten da: gero eta gutiago erabiltzen gizarte harremanetan eta lan lekuetan. Oroit Mackeyren esaldi lazgarria "Gero eta gutiago, gero eta funtzio gutiagoren betetzeko, azkenean denek erdara".

Aterabide bakarra da Quebecarrek bezala, daukagun autonomiaz baliatu behar dugula euskarari lehentasuna emateko, ez bakarrik irakaskuntzan, bai eta ere gizarte harreman guztietan. Euskarak galdu dituen eremuak berriz irabazi behar ditu herriaren dinamikaz eta legearen laguntzarekin. Erdara ere hor izanen da, komunikazio zabalerako, frantziara Iparraldean, gaztelania Hegoaldean, ingelesa orotan. Gaurko Europaren elebakarduna analfabeto da.

Arrazoin bat gehiago da herriko harremanetan euskara lehenik edo bakarrik erabiltzeko. Estatuaren Konstituzioekin ez adostasunean jarriko garela? Hori gerta daiteke: kultur au-

toafirmazioak politika autodeterminazioa ekar dezake. Quebecen bezala. Hobe segur. Esan nahi du gure historia ez dela bururatua.

Azken hitza

Platon filosofoak herria gizon batekin konparatzen zuen: burua politika da, buruzagi jakintsuna. Bihotza herriaren zaintzaleak. Eta sabela jatera ematen duten langileak, laborari ala arrantzale. Konparaketa doi bat aldatuz esan genezake, burua herriaren nagusitasuna dela, bihotza herriaren hizkuntza eta kultura. Sabelaren betetzeko ekonomi garapena. Beude beste batzu ekonomiaz hitz egiten, Gorordo eta beste.

Ezin da asmatu, bihotzik gabeko gizon buruduna, ez eta ere bururik gabeko bihotzik. Herri hizkuntza galdu duen estatua (adibidez Irlanda), ala nagusitasun gabeko herri kultura (Quebecen bezala) nortasun motzeko herriak dira. Biderdi egina dute halere. Gu oraino nortasunaren galtzeko arriskuan gauden nagusitasun faltan eta hizkuntz diglosian. Euskal Herrian erabaki behar dugu non dagoen nortasunaren finkatzeko bidea. Autonomiatik hizkuntz berpiztera eta gero kulturatik nagusitasunera. Herri baltikoen erakaspenak hor ditugu.

Asma dezagun zer askatasuneraino eramaten gaituen nortasunaren berpizteak. Herriaren eremu osoaz berriz jabetzen ari gara, eta, herriz kanpoko mugak erortzen ari direlarik, ez dugu herri barnean mugarik eraiki behar. Are gutiago kultura eta subiranotasunaren artean.

«Herri hizkuntza galdu duen estatua (adibidez Irlanda), ala nagusitasun gabeko herri kultura (Quebecen bezala) nortasun motzeko herriak dira. Biderdi egina dute halere»

Erramun Bachoc
EHUko irakaslea